



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2009-10-14

VILURTEA 1800.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Krisiaren aurrean enpleguaren aldeko apustua egin dute hainbat sindikatuk

**EKONOMIA** ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek eredu berri baterako dekalogoia aurkeztu dute

**ZABALKUNDEA** Tolosaldeko eta Goierriko herri guztietan landuko dute, lantegiz lantegi datozen egunetan 2



Atzo aurkeztu zuten dekalogoia LAB eta ELA sindikatuetakoko ordezkariak. ESKEINE LEGORBURU

**JOSE RAMON EIZMENDI** NUMANTZIAKO BIGARREN ENTRENATZAILEA

«Zubietan lan ona egiten da, baina ez da behar bezala baloratzen»

**IKAZTEGIETA** Hamabost urte egin ditu Realean lanean, eta orain Numantzian ari da Eizmendi, Gonzalo Arkonadaren ondoan 5

## Denboraldi hasiera «bikaina» egin dute eskualdeko hiru mahai tenis taldeek

**MAHAI TENISA** Bigarren mailako euskal ligako Olaederrak eta bigarren mailako nazional mailako Usabal MT-Tolosak erraz irabazi zuten 4

## Haur, gazte nahiz helduentzako ikastaroen eskaintza zabala

**IRURA** Haur eta gazteentzako 7 ikastaro, helduentzako 8 eta 3 monografiko daude aukeran; hilaren 22a baino lehen eman daiteke izena 3

denda

eskura ezazu...

**HITZAren poltsa!**  
harpidedunak 19€, bestiak 24€



**HITZAren jaka beltza!**  
harpidedunak 50€, bestiak 60€

neskentzat  
nahiz  
mutilentzat!

# Krisiaren aurrean «enpleguaren aldeko» dekalogoia kaleratu dute

**Ekonomia»** ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek kaleratu dute dekalogoia Goierrin eta Tolosaldean.

## ESKEINE LEGORBURU

Eguneko krisi ekonomikoaren ondorioz bizi den egoera dela eta, «enpleguaren aldeko apustu nabarmena» egiten duen dekalogoia kaleratu dute ELA, LAB, ESK, ESTEE/EILAS, EHNE, eta HIRU sindikatuek. Maiatzaren 21ean deitutako grebaren ondoren, «erantzun hutsean» ez direla geratu eta «proposamenak luzatu» dituztela aipatu dute dekalogoaren aurkezpenean.

LAB sindikatuko Olatz Amianok esan duenez «enplegu babesu eta bere kalitatea hobetzeko neurriak proposatu» dituzte, enpresariei eta instituzioei zuzenduta dauden babes soziala areagotzeko neurriak planteatu. «Benetan langileen eskubideak defendatu nahi baditugu dekalogoan planteatzen diren neurrien norabidean, bestelako eredu ekonomiko sozial bat eraikitzea ezinbestekotzat» jotzen dute.

«Gobernu eta instituzio desberdinek burutzen dituzten politika publikoen inguruan ere» baikortasunik ez dagoela gehitu du Amianok, azken urte hauetan «atzera pauso nabarmenak eman direla-



Amenabar, Amiano, Oianguren, eta Iturbe, LAB eta ELA sindikatuak ordezkariek, dekalogoaren aurkezpenean. E.L.

## » HAMAR URRATS EREDU BERRI BATERAKO DEKALOGOIA

■ **1. urratsa.** Enpleguari eusteko espediterik ez onartzea gehiengo sindikala ados ez badago, aldi baterako kontratazioan iruzurriz ez egitea, pribatizazioa eza, eta lanegileen osasuna babestea.  
 ■ **2. urratsa.** Lan baldintzetan berdintasuna bermatzea genero, adin, ezgaitasun edo naziotasun diskriminaziorik gabe.  
 ■ **3. urratsa.** Prestazio sozialak ugaltzea langabeziaren eta pobreziaz hazkunde murrizteko

■ **4. urratsa.** Zerga politika bidezkoa eta progresiboa, aberastasuna modu justuan banatzeko.  
 ■ **5. urratsa.** Osasunaren eta hezikuntzaren gastu publikoak igotzea garatuen dauden herrialdeen batzuek besteko maila berdintzeko.  
 ■ **6. urratsa.** Menpekotasun egotzeko kalitatezko zerbitzu publikoekin erantzutea, sare publikoan 0 eta 3 urte bitarteko eskaria eskaintzea, eta alokairuko etxebizitzak eskuragarriak izatea.

■ **7. urratsa.** Sare publikoa bultzatzea eta garapen ekonomiko eta soziala eragile bihurtzea.  
 ■ **8. urratsa.** Gehiengo sindikala onartu eta errespetatzea.  
 ■ **9. urratsa.** Politika ekonomiko eta sozialean parte-hartze soziala sustatzea, jendearen iritzia kontsulta eta erreferendun bidez hainbat hartuz.  
 ■ **10. urratsa.** Lan harremaneratarako eta Babes sozialerako Euskal Esparrua bultzatzea.

ko, eta hartu diren erabaki guztiak betikoan mesedetan izan direlako». Dirua eta aberastasuna badaudela ere esan dute aurkezpenean. «Arazoa da dagoena betiko eneskuetan dagoela».

Honi aurre egiteko «bestelako eredu ekonomiko eta sozial berri bat» eraiki behar dela esan du Amianok. Hori lotzeko bi modu azpimarratu ditu: «inposatzen dituzten eredu ekonomiko eta sozialean mesedetara lanean jarri eta beraiek uzten dizkiguten miserien gestioan sartzea, edo bestelako eredu sozialean alde lana egitea. Gehiengo sindikalak kontratorearen aldeko apustua egiten du», eta horren harira kaleratu dute hamar puntuz osatutako dekalogoia.

Datozen egunetan Tolosaldeko Legazpirainoko enpresaren dekalogoia landuko da. Oianguren ELAko kideak azaldu duenez «sindikatu bakoitzak bere barne lana egin behar du dekalogo hau langileei helaraziz, jendeak ezagutzeko». Enpresaz-enpresa batzar orokorrek eta sinadura bilketak egingo dituzte langileen babesaz. Ondoren, dekalogoia eskualdeko herri guztietara zabalduko da: «sinadura bilketak egingo dira azoketan, kiroldegietan...».

## Elkarretaratzeak Bellotan

Hitzarremenaren alde eta xantaiaren kontra, Legazpi Bellota Herriarmentas enpresan, «lantegiko hitzarremenaren geldialdi garbia dela eta», Bellotako Komiteak kontzentrazioak egingo dituela jantzen aurrean.

Gaur eta ostiralean egingo dira elkarretaratzeak, 13:30etik 14:30eta Bellota lantegiko sarrean.

## Denboraldiko lehen porrota iritsi da, Bide Bide Ibizarentzat

**Saskibaloia»** Seky.es talde gasteiztarren aurka jokaturako partidaren, 66-69 irabazi zieten arabarrek eskualdeko.

## ERREDAKZIOA

Zornotzan irabazi ondoren kanpoan eginiko lana etxean sendotasunez erantzuteko asmoz kantxaratu zen taldea. Traje oso dotore egon arren Martiaren baxa izan zuen taldeak, eta bere tokia Iortzek bete zuen. Igandean jokaturako partidarako Haritz, Lakun eta Mi-

kel Txiki errekupearatu zituen beraien egin behar bereziak bukatu ondoren.

Partida oso motel hasi zen, defentsak izan ziren nagusi lehen minutuetan eta saskiratze bat lortzeko izugarritzko izerdia suposatzen zuen. Hala ere, Mendiluk bere hirukoekin saskirako bidea ederki aurkitu zuen. Gasteiztarrek beraien kanpoko jaurtiketa erabiliz partidako lehen abantailak lortu zituzten. Honenbestez, hasierako laurdena 16-20 bukatu zuten.

Bigarren laurdenean tolosarrak izan ziren nagusi beraien joko erritmoa aurkariaren gainetik eza-

rriaz. Errebotean nagusitu eta erasoko jokoan asko hobetu zuten. Baina, atzean eginiko huts egiteek kanpotarrak partidaren mantentzerako eraman zituen.

Atsedendialdiaren ondoren taldearen joko maila apaldu egin zen eta saskirako bidea aurkitzea gero eta gehiago kostatzen zen. Bi taldeetan nabarmena izan zen nekea eta freskoena zegoenak partida bere eremura eramatea lortuko zuen. Gauzak honela, azken minutuetan iritsi ziren Sekykoen abantailarekin. Hala ere, Mikel Txikiren 3+1-ak esperantza piztu zuen Usabalerguratu zirengana. Dena den, beranduegi zen jada, buelta emateko.

Hurrengo partidaren Fundacion Baskonia talde gazteari bixita egin beharko diote Bide Bide Ibizakoei. Aste honetako joko kaskarra alde batera utzi eta emaitza hobea lortzeko esperantza bidaiatuko dute.

## Altsasu eta Tolosa arteko lanak eskainita

**Azpiegiturak»** Adifek egin du jada bi herri hauen arteko trenbide sarea berritzeko obren kontratuaren eskaintza.

## ERREDAKZIOA

Altsasu eta Tolosa arteko trenbide sarea berritzeko obren kontratua eskaini du Adifek. Denera 45 kilometrotan egingo liriteke lanak. Madrid eta Hendaia arteko sareko zatia da hau. 4,2 milioi eurokoa da obraren aurrekontua, eta hau Espainiako Gobernuak ordainduko du. Halaber, hemeretzi hilabeteren buruan gauzatu beharko dituzte lanak. Gure eskualdeari dagokionean hiru herrititik igarotzen da bidea: Tolosa, Alegia eta Ikaztegieta.

Mikel Cabieces, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariek komunikatu baten bitartez, agertu

du, jarduera hauen helburua dela, bi hirien arteko sarearen eragin-kortasuna hobetzea. Honela, beti, azpiegituren erabilzaileei, segurtasun maila egokienak eta ziurrunak eskaintzeko.

Ekimen honen barruan aurkitzen da ere, Tolosa eta Altsasu arteko tunel guztien birgaitzea. Ondorengo hauenak hain zuten ere: Rosearea, Salinas, Ozurza, Zumarraga, Ormaiztegi, Legorreta eta Ikaztegieta. Baita, Brinkolako geltokian egingo diren hainbat hobekuntza eta plataformako zenaibait konponketa ere. Honez gain, egun, putzuak egiten diren, nahiz, irristatzeko arriak dagoen hainbat tokitan, aldaketak egingo dituzte.

Eskaintako lanak tarte honetan bertan, Sustapen Ministerioak garaturako obren osagarri dira. Hauen xedea, trenbide sarea hobetzea da, zerbitzu on bat eskaintzeko.

# MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Esulan ezberdinak egiten ari dira bi emakumeak, kasu honetan, Albizturren. ESTI EZEIZA

## Urte osoko ikastaroetan izena emateko aukera dago

**Irura** » Ikastaroetan aukera zabala eskaini dute. Urriaren 22a baino lehen izena eman behar da udaletxean.

### ENERITZ MAIZ

2009-2010 ikasturterako, Irurako Udalak ikastaro ezberdinen eskaintza zabala ireki du. Izena emateko aukera zabali dago urriaren 22a bitarte. Izena emate orria bete eta udaletxean entregatu beharko da. Ikastaroak, azaroaren 2tik aurrera hasiko dira.

### Haur eta gazteentzako ikastaroak

Antzerkia ostegunetan 18:00etatik 19:00etara edo 19:00etatik 20:00etara egiteko aukera egongo da. Asteartetan, eskulanak egongo dituzte 17:30etik 18:15era edo 18:15etik 19:00etara. Larunbat goizez, Xakea larunbat goizetan emango da. Xakea berriz, ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan izango da eta bertan izena eman ahal izateko, 6 urtetik gorakoak izan beharko dute. Palan ibiltzen ikasi nahi duenak berriz, 10 urteak beteak izan beharko ditu eta ikastaroa, asteazkenetan izango da 18:45etatik 20:00etara. Dan-

tza ikastaroa ere izango da; alde batetik, asteazkenetan, 3 eta 6 urte artekoentzat bakarrik izango da 17:30etatik 18:15etara. Eta bestetik, astelehen eta asteazkenetan, 6 urtetik gorakoentzat izango da, 18:00etatik 19:45etara. Ingelera ikasteko aukera egunero eskainiko dute, hau da, astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:30era.

### Helduentzako ikastaroak

Aerobick egiteko aukera, astelehen eta ostegunetan izango da 15:30etik 16:30era. Mantentze gimnastika, astelehen eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara egongo dute. Body combac, ostiraletan izango da 17:00etatik 18:00etara, yoga berriz, asteartean, 18:00etatik, 19:30era. Asteartean, eskulanak, 16:00etatik 17:30era eta pilateseko hastapena egin ahal izango da, 20:15etatik, 21:00etara. Ziri-enkajea, astelehenetan, 16:00etatik, 18:00etara. Egur-taila, 12 urtetik aurrera, asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara. Azkenik, Euskara ikasteko aukera eskaintzen dute, astelehenetan, asteartean eta ostegunetan, 15:00etatik 17:00etara.

### » ESKAINTZAK

#### Haur eta gazteentzako

■ **7 ikastaro.** Antzerkia, eskulanak, xakea, xarea, pala, dantza eta ingelera.

#### Helduentzako

■ **8 ikastaro.** Aerobick, mantentzeo gimnastika, body combac, yoga, pilateseko hastapenak, ziri-enkajea, eskulanak, egur-taila eta euskara.

#### Monografikoak

■ **Helduak.** Memoria suspertzeko tailerra eta gozogintza.

■ **12 urtetik aurrera.** Argazki DVD baten eraketa eta joskintza.

#### Ikastaro monografikoak

Urtean zehar egongo diren ikastaro monografikoen artean helduentzako memoria suspertzeko tailerra eta gozogintza daude. 12 urtetik aurrerakoentzat, argazki DVD baten eraketa edota joskintza ikastaroak izango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero ikastaro hauen guztien inguruan San Migel Plaza 1, beheko bulegoko telefonora 943 691333 10:00etatik 15:00etara deituz, liburutegian, 16:30etik 19:00etara edo 943 692674 zenbakira deituz, edota Gazte eta kulturunekeko telefono zenbakian 943 694292 edota bertara 16:30etik 19:00etara hurbilduz jaso daitezke.

## Kirol Astearen baitan Argazki Lehiaketa antolatu dute

**Anoeta** » Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da. Azaroako Kirol Astearen erakusketa egingo dute.

### E. MAIZ

Anoetako Udalak, azaroan egingo duten Kirol Astearen baitan, argazki lehiaketa antolatu du. 2010eko egutegia osatzeko baliatuko dituzte lehiaketara aurkeztuko diren argazkiak.

### Lehiaketaren ezaugarriak

Aurtengo gaia kirola izango da eta lehiaketa honetan parte hartzeko, Anoetan errolatuta egotea beharrezkoa da. Bakarka edo taldean aurkeztu daitezke baina argazki kopuruari dagokionean, lehiakide edo talde bakoitzak, gehienez ere, 3 argazki aurkezteko aukera izango du. Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da eta Anoetako udaletxean edo kiroldegian aurkeztu beharko dira.

Argazkiak paperean errebelatuta aurkeztuko dira (ez inprimatuta), 13x18 neurrian eta horizontalean. Lehiaketan, argazki bertikalik ez dute onartuko. Argazkiak, kartazal batean sartuta aurkeztuko dira, eta kartazalaren kanpoalde-

an, *Argazki lehiaketa*, ipini beharko da. Barruan doan argazki bakoitzaren atzealdean datu hauek idatzi beharko dira: Lehiakidearen izen-abizenak, edota taldearen izena eta bere ordezkariaren izen-abizenak. Bestetik, kontakturako telefono zenbakia eta argazkiaren izenburua agertu beharko dira.

### 8 argazki sarituko dira

Udalak guztira, 8 argazki sarituko ditu eta sariak hauek izango dira: Argazkiak udalaren 2010. urteko egutegian aterako dira. 50 euro jasoko ditu argazki bakoitzaren egileak (pertsona edo taldea).

Gainera, sarituak izan direnei, Udalak 2009ko egutegia egin ahal izateko, argazkiak CDan eskatuko dizkiete.

Ohar pare bat ere aipatu dituzte antolatzaileek; alde batetik, argazkien atzealdean idatzeko, errotulagailu berezia erabiltzea aholkatzen dute, edota bestela, datu guztiak, etiketa batean idatzi eta etiketa argazkiari itsastea. Eta bestetik, argazkiaren bertan ez dadila, ahal bada, datarik azaldu.

Behin lehiaketa amaituta, Udalak, erakusketa egingo du argazki guztiekin Abraham Olano kiroldegian. Argazkiak ikusteko aukera, azaroaren 9tik 16ra izango da Kirol Astearen ekintzen artean.

## Laburrak

### Euskal Jaiaren balorazioa egiteko bilera ostiraletan

**ANOETA** » Eguraldia lagun ez izan arren, Euskal Jaia, igandean ospatu zuten eta jendeak ederki erantzun zion hitzorduari. Balorazioa egiteko, bilera antolatu dute udaletxean, hilak 16, ostirala, 18:00etan. Antolatzaileek, herriko talde guztiei eta herritarrei, bertan parte hartzeko gonbita luzatzen die eta datorren urteari begira, beraien ekarpenak egin ditzaten.

### Gaur San Miguel Jaiaren balorazioa egiteko bilera

**IRURA** » Pasa berri diren 2009ko San Miguel Jaiaren balorazioa egiteko bilera antolatu dute. Bileran, gaur, arratsaldeko 19:00etan hasitako izango da Udaleko batzar areto nagusian. Festa Batzordeko kideek deitua izanda eta herritar guztiei bertan parte hartzeko gonbita luzatzen zaie. Aurtengoan gainean eta hurrengo urtera begira, ideia berriak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

## Laburrak

### Nafarroa Oinezera autobusetz joateko aukera

**TOLOSA** ● Galtzaundi Euskara Taldeak Nafarroa Oinezera joateko autobusak antolatu ditu. Aurten Etxarri Aranazaren ospatuko da jaia hilaren 18an. Autobusa 09:00etan aterako da Tolosako Renferen geltokitik eta itzulera 19:00etan izango da. Bertara joan nahi duenak txartelak 11 eurotan erosi ditzake. Bazkideek berriz, bi euro gutxiagotan, hau da, 9an. Horretarako, Galtzaundik Tolosan duen egoitzara joan beharko dute.

### Haur minbiziaren inguruko jardunaldiak, larunbatean

**TOLOSA** ● Aspanovas Gipuzkoa eta Tolosako Udaleko Osasun Sailak hitzaldi bat antolatu du larunbat honetarako, hau da, hilaren 17rako. Bertan jorratuko den gaia ondorengo izango da: Haur minbiziari arreta osoa jartzearena. Hitzaldia baino gehiago, jardunaldiak izango dira, eta hiru orduko iraupena izango du. 10:30ean hasiko dira saioak eta eguerdian, 13:30ak aldera amaituko dira.

### Idoia Sanchez ipuin kontalaria Gaztelun

**GAZTELU** ● Urriaren 15ean, osteguna, Idoia Sanchez ipuin kontalaria Gazteluko Herriko Erroizpe azpiko kirol eta kultur elkartearen izango da Uli mankomunitatearen eskutik. Arratsaldeko 18:30etik aurrera, herriko txikienei istorio ezberdinak kontatuko dizkie.

### Alpino Uzturretik mendi irteera urriaren 18rako

**TOLOSA** ● Alpino Uzturre elkarteak, urriaren 18rako mendi irteera antolatu du egun osorako. Txangoa, Apellanizen hasi eta Monasterio-gurenen bukatuko dute. San Cristobal (1057 m.), San Justo (1028 m.), Kapildui (1177 m.) eta Pagan (1029 m.) mendiak igoko dituzte. Irteerarako autobusa, Santa Klaratik aterako da 07:30ean. Bazkideek, 11 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek berriz, 13 euro. Izena, Alpino Uzturre elkartearen bertan, [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidera idatziz edota 943 65 27 89 telefono zenbakira deituz eman daiteke.

### Tolosaldeko gazteentzat txangoa, hilaren 24ean

**TOLOSA** ● Denak tabernakoek egunpasa antolatu dute hilaren 24rako. Txangoa eskualdeko gazte guztiei zuzenduta dago. 09:30 inguruan elkartuko dira tabernan bertan, gosaltzeko. Ondoren Getariara abiatuko dira, eta bertan poteatzen ibiliko dira eguerdira arte. Jarraian, Lasturren bazkalduko dute. Menua hau izango da: entsalada, urdaiazpikoa, frijitua, basterriko oilaskoa eta postrea. Bazkalostean zezenen aurrean korrika ibiliko dira, eta iluntzerako Tolosara itzuliko dira, parrandara. Bidaierako txartelak 35 eurotan erosi daitezke Denak-en bertan.

### Guraso eskolako lehen saioa gaur, 18:30ean

**TOLOSA** ● Orixen institutuan gurasoentzako eskolak antolatu dituzte. Hala, lehendabiziko saioa gaur bertan izango da. Bertan, seme-alabaren lagunez eta autoestimiaz mintzatuko dira. Beraz, Orixen, Gorosabeleko liburutegian bilduko dira 18:30ean.



Denboraldiko lehen partidak jokatu dituzte eskualdeko jokalariek. HITZA

## Hasiera polita eskualdeko mahai tenis jokalarientzat

**Kirola** ● Euskal ligako bigarren mailako Olaederrak eta nazional mailako Usabal MT taldeak erraz irabazi zuten.

### ERREDAKZIOA

Eskualdeko mahai tenis jokalarientzat hasi da ofizialki denboraldi berria. Olaederra Mahai Tennis taldeak hiru talde osatu ditu: Bigarren mailako taldea nazional mailan, euskal ligako lehenengo mailako talde bat eta euskal ligako bigarren mailako talde bat.

Hala, iragan larunbatean euskal ligako lehen mailako taldeak 4 eta 2 galdu zuen Gasteizko Arauko Sansomendi taldearen aurka. Gorri Armentia, Raul Lopez eta Xabi Juantorenak osaturiko taldeak ireki zuen txapelketa. Lehen bi puntuak eskualdekoek irabazi zituzten, Armentia eta Lopezen garaipenekin, baina gainontzeko puntuak gasteiztarrek irabazi zituzten. Beraz, jokoan zeuden bi puntuak Gasteizera joan ziren.

### Estreinakoan ederki

Bigarren mailako euskal ligako Olaederraren taldeak Bilbon jokatu zuen partida larunbat goizean. Peñascal taldearen aurka zuen norgehiagoka, eta billabonatarrek aise galditu zuen, 0-6ko emaitzarekin, hain zuzen. Jose Arruarte, Dani Pinargote eta Borja Caramanzana jokalariek osatzen dute taldea, eta federatu bezala euren estreinako aldia den arren maila ona erakutsi zuten.

### Usabal MT ere «bikain»

Bai euskal ligan, bai eta Espainiakoan ere, joko sistema aldatu egin dute aurreko denboraldiari dago-kionez. Hala, lehia bakoitzean hiru jokalariek bi partidak jokatzeko dituzte, eta banakako guztiak ere jokatzeko dituzte. Banakako sei partidaren ostean berdinketa badago, banakako azken partida batek erabakiko du azken puntua.

Ez zen berdinketarik egon bigarren nazional mailako ligako partidaren. Usabal MT-Tolosako taldeak Schooll Zaragozaren aurkako lehia zuen larunbat arratsaldean, eta eskualdekoek erraz irabazi zuten, 5-1eko emaitzarekin. Iker Muguierza, Jota Urkizu eta Emiliano Anton jokariek osatzen dute Tolosako taldea, eta banakako guztiak irabaziz hasi ziren. Sollik Jota Urkizuren aurka irabazi ahal izan zuten aurkariek. Etxekoek horrela lehen bi puntuak lortu zituzten. Lehenak izanagatik ere garrantzitsuak dira, izan ere, talde eta jokalaririk handiak ariko dira denboraldi honetan. Taldearen helburua pasa den urteko bosgarren postua hobetzen saiatzea izango da, eta «ahal bada goiko postuetara gerturatu, goiera fasean sailkatzeko».

### Aste honetako lehiak

Hurrengo partida Lleidán jokatu du Usabal MT-Tolosak CTT Borgesen aurka. Bestalde, euskal ligako lehen mailako Olaederrak Irunen jokatu du Itsas Izar taldearen aurka, eta euskal ligako bigarren mailako Olaederraren taldeak, etxean, Villabonan, jokatu du Arauko Sansomendiren aurka.

**@ Zurea da Hitza.** Eskualdean, zure herrian, zure auzoan, gertatzen denaren berri eman dezakezu Zurea da Hitza atalean. Halaber kexak, iradokizunak, ere sar ditzakezue edota bestelako ekarpenak. Horretarako sar zaitezke [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean eta klikatu Zurea da hitza atalean. Beste ataletan ere bisitatxo bat egin dezakezue, noski:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

**mantangorri** rekin

**Zinema etxean 4**

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 €  
ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45  
[harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)  
edo [www.berria.info](http://www.berria.info)

Babeslea:

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA BARRA  
Herriko Kulturako Departamentua

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

## Iragarki laburrak

### AURKITUAKOAK

■ **Arropa.** Larunbat iluntzean, hilaren 10ean, mutilentzako arropaz betetako poltsa bat aurkitu nuen Villabonako Olaederra kiroldegian ondo kokatuta. Galdutuenak dei dezala 943 65 56 95 telefono zenbakira.

**E Elkarrizketa**

**JOSE RAMON EIZMENDI** › Numantziako bigarren entrenatzailea



HERALDO DE SORIA

# «Zubietan oso lan ona egiten da, baina ez da behar adina baloratzen»

**Ikaztegieta** ›

Hamabost urte egin ditu Realean lanean. Orain, ordea, Numantzian ari da, Gonzalo Arkonadaren ondoan.

**XABIER LOPETEGI - BERRIA**

Entrenatzaile gisa, futboleko buru-belarri aritzeko aukera izaten ari da lehen aldiz Jose Ramon Eizmendi (Ikaztegieta, 1960) Sorian, Espainian, lantokian eman dioten bi urteko baimenari esker: «Eskertzekoa da izan duten jarraera. Lehen atzera eta aurrera ibiltzen nintzen, eta ordu pilabat eman nintuen, baina erritmo horretara ohituta nengoen, hainbeste urte ondoren». Urtebeteko kontratua du, eta, oraingoz, gauzak ondo egitea du helburu bakarra. Sei urtez izan zen Realeko jokalaria eta hamabost urte daramatza entrenatzaile moduan, 1994. urtetik, gaur egunera arte.

**Entrenatzaile modura, lehendabiziko aldiz Reala aurkari izan duzu. Urriaren 4ko partidari 1-3 galduta zuten Numantziak Realaren**

**aurka. Jokalari modura, ordea, izana zara Realaren arerio.**

Jokalari bezala, Oviedon nengoen, bere aurka jokatu nuen Espainiako Kopan. Toshackek jokalaria guztiak 03:00etan esnatu eta Donostiara bueltan eramane zituen partida famatu hura izan zen. 0-1 irabazten hasi zen Reala eta 2-1 irabazi genuen guk.

**Zer moduz jokatzeko ari zarete Numantzian?**

Gustura gaude. Joko polita egiteko gai gara, ez bakarrik emaitzak ateratzeko. Beti izan ohi du taldeak sendotasun eta borroka puntu hori, baina orain baloia oinetan

**«Jokalariei ez dio mesederik egiten egunero helburua igotzea dela esateko»**

duenean ondo ukitzen du, eta konbinazio politikak egiten ditu, aukerak sortzeko. Ez du joko zuzenaria egiten. Oraingoz ondo ateratzen ari zaigu apustua, ea denboraldi bukaeran zer lortzen dugun.

**Eta Reala zer moduz ikusi duzu?** Aldaketa asko izan ditu, baina politikari da hobetzen eta piezak lotzen. Liga amaieran goian egoteko hautagaia da niretzat.

**Realeko lehen taldeko zenbat jokalaririk izan dituzue zure aginduetarako?**

Asko. Riesgo, Zubikarai, Estrada, Carlos Martinez, Ansotegi, Gonzalez, Sarasola, Elustondo, Markel, Prieto, Agirretxe, Viguera... gehienak bai. Pozten nau etxeko jendea aurrera ateratzeko, pertsona bezala ere jatorrak direlako, eta azken helburua lortzen badute, are gehiago poztuko naiz.

**Huescaren aurka, harrobiko lau jokalaririk zeuden hasierako hamakakoan.**

Zubietan oso lan ona egiten da, baina ez da behar adina baloratzen. Sarritan entzuten da bertan ez dela lanik egiten, baina nik uste oso txukun ari dela kluba, eta aipatzen duzuna da horren frogara. Nire iritzia da.

**Agian egonkortasuna falta izan da?**

Aldaketak egotea, jende berria sartzea eta besteak joatea, normala da. Toki guztietan gertatzen da. Baina gehiegi izatea ez da ona. Egonkortasuna behar da, bai, baina Zubietan ondo eutsi die aldaketa horiei, oinarri eta orientazio onak dauzkalako.

**Griezmannekin bero-bero dabil jendea. Zer deritzozu?**

Ezagutzen nuen. Joan den urtean

Eason jokatzeko zuten. Partida zehazteko ikusi nitzion: teknikoak da, abiadura handikoa eta beti atera begiratzen duena. Itxura ona dauka. Meritu handia dauka, izan duen lehen aukera aprobetxatu duelako. Ea bide beretik jarraitzen duen.

**Presio handia sumatzen duzue Realaren inguruan?**

Bai, eta hori ez da ona. Exijitu bai, baina konfiantza eta animoak ere eman behar zaizkie jokalariei.

**Baina helburua igotzea baldin bada, presioa egotea logikoa da, ezta?**

Bai. Baina hotz pentsatzen hasita, igotzeko antsietatea denok daukagu. Jokalariek badakite helburua hori dela, baina egunero eta ordu oro esateak ez die mesederik egiten.

**Zergatik esan zenion balezte Numantziaren eskaintzari?**

Ez zen pauso erraza, nire bizimodu osoa aldatzea zelako, baina konfiantza handia neukan Gonzalorik [Arkonada], pertsona serioa eta zintzoa delako. Badakit zein den haren metodoa, Reala Biren garaian ere hura laguntzen egon nintzelako. Beste batekin ez nintzen etorriko ziurrenik.

**Aspalditik ezagutzen duzue elkar ezta?**

Bai, 14 urte inguru genituenetik. La Sallen elkarrekin ikasten genuen. Hark La Sallen jokatzeko zuten, atezain, eta nik, Seguran, aurrelari. Gogoan dut Gipuzkoako finala irabazi zigutela.

**Zein da Numantziaren sekretua?**

Lana zuzen eta lasaitasunez egitea. Hemen gauzak ez dira puztzen, naturaltasunez eta bere erritmoan egiten dira. Instalazio bikainak ere badauzkagu. Kirol hirian hiru zelai daude, bi belar naturalekoak. Estadio berriaren aldamenean, berriz, Pajaritos zaharra ere badago, entrenatzeko.

**Realera itzuliko al zara noizbait?**

Ez da erraza. Ez nago horretan pentsatzen orain.

**Atzeko atetik irten zaren irudipena duzue?**

Ez, ez. Realaren aurka ez dut ezer. Beti egongo da nire bihotzean, beti izango da nire taldea. Bakoitzak badaki zer erabakitzen duen. Gauzak ahalik eta ondoena egiten saiatzen nintzen. Egin behar nuena

**«Numantzian gauzak ez dira puztzen, naturaltasunez eta bere erritmoan egiten dira»**

egin nuen, eta alde horretatik gurtura gelditu nintzen.

**Lehen taldeko entrenatzaile modura eman zenuen denbora nola gogoratzen duzue?**

Gustatuko litzaidake denbora gehiago egotea, baina ez zegoen nire esku. Emaitzak ez ziren izan guk nahi genituenak, eta horiek dira azkenean dena ematen edo kentzen dizutenak.

udazken-neguko


arropa  
eta  
osagarri  
berriak

salgai

Hitzaren bulegoan

Araba etorb. 5  
atzea - Tolosa

Herriko plaza  
Leitza



# «Paletan aritzeko aukera ezin hobea»

**Ibarra** » 18 urtetik gorako emakumezkoentzako ikastaroa izango da; duela bi urte egin zuten lehen aldiz.



Iazko Emakume Pilotari Egunean 80 bat emakume bildu zen Iruran. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 18 urtetik gorako emakumeentzako paleta ikastaroa abiarazi du aurten ere Ibarran.

Duela bi urte egin zuten lehen ikastaroa eta ordutik «emakume kopurua igo» dela nabarmendu dute Emakume Pilotari ekimeneko arduradunek. «Aurten ere talde polita osatzera espero dugu», esan dute.

«Emakumezkoa izan eta pilota atsegineraz gero, paletan aritzeko aukera ezinhobea daukazue parez-pare. Astean behin behintzat, paleta ardatz hartuta, lagun giro atsegineraz, ariketa fisikoa egin eta izerdi pixka bat botatzeak merezi du. Ez galdu alperrik aukera eder hau», argitu dute Emakume Pilotariakoek.

**2004ean sortutako egitasmoa** 2004tik Gipuzkoako hainbat herritan abian den Emakume Pilotari proiektuaren baitan kokatzen da aipatu jarduerara, partaidetzako kirolaren barruan, hain justu.

Azarotik ekainera bitarte, astelehenean, arituko dira paleta ikasten. Ordu eta erdiko paleta saioak egingo dituzte bertaratzen direnek eta egitasmoko arduradunek teniseko pilotarekin eta paleta ariekin ariko direla ere argitu dute. Saioak zuzentzeko Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietan lizen-

tziaturiko teknikari bat izango dute. Ikasturtearen amaieran azken festa batean Gipuzkoako herri ezberdinetan ikastaroa egiten ari zirenen emakumeekin bilduko dira, Emakume Pilotari Egunean. Iaz 80 elkartu ziren eta egun pasa ederra egin zuten Iruran.

**Azken eguna hilak 23**

Ikastaroan izena emateko azken eguna hilaren 23a izango da eta Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioara deituta eman daiteke (943 47 14 63) edota 628 904 156 telefono

zenbakira deituta. Aste honetatik aurrera, kiroldegian egongo diren izen-emate orriak bete eta bertan utzita ere eman ahal da izena.

**» DATUAK**

- **Eguna.** Astelehena.
- **Ordutegia.** 18:45-20:15.
- **Lekua.** Belabieta kiroldegia.
- **Hasiera.** Azaroko lehen astean.
- **Materiala.** Irakasleak eramango du.
- **Kuota.** 105 euro (ikastaroa eta aseguru).

## Ezker Hormako Emakumea Pilotariko 3. jardunaldia larunbatean

**Pilota** » Bigarren jardunaldiko hiru partidak Orion izan ziren; Etzegia-Arozena izan ziren bigarrenengo irabazleak.

**ERREDAKZIOA**

Ezker Hormako Emakumea Pilotariko bigarren jardunaldiko partidak izan dira asteburu honetan Orion. Hiru partida jokatu zituzten eta emozio gehien lehenengorekin izan zen, izan ere Espinar-Inziartek 30-27 irabazi zien Pirola-Mendizabali. Bigarren partidari Etzegia-Arozena lizartzarra eta Redondo-Montes aritu ziren eta lehenek irabazi zuten 30-20. Azken partidari Fernandez-Manzisi-dor eta Urkizu-Erasti aritu ziren eta lehenek irabazi zuten 30-20, euren lehen garaipena izan zen, gainera. Hirugarren jardunaldia larunbat honetan izango da Tolosako eta Villabonako frontoietan.

## Sei goierritar epaitu dituzte AHTren aurka egiteagatik

**ERREDAKZIOA**

Sei goierritar epaitu zituzten atzo, Tolosan 2008ko ekainean Ordizian «AHTren espropiazioen aurka eta Ordiziako Udalaren jarreraren aurka egindako protestarengatik».

Sei gazteetako bi udaletzeko balkoian kateatu ziren pankarta batekin eta beste lauak balkoira igitzeko erabilitako eskailea eramateagatik identifikatu zituen. Ertzaintzak.

Lehen akusazioa «desordena publikoak» egotzita delituztat jarri bazuten ere, epailek falta gisa epaitzea erabaki zuten. «Gauzak hala, fiskalak egun bakoitzeko 6 euroko isunarekin, 30 egun eskatu ditu desordena publikoak direla eta, eta 6 pertsonetatik 2ri, ertzainak iraundu zituztela egotzita,



Elkarretaratzea egin zuten epaiketaren aurka egiten ari ziren bitartean. E. EZEIZA

beste 30 eguneko isuna eskatu du», argitu du Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak. Fiskalaren eskaera, egun hartan, asteazkeneroko azokazela eta, sei lagunek eginiko protestak herritarren ohiko funtzionamendua kaltetu zuenaren ostean oinarritu da. «Hala ere, uste hori erabat deuseztatuta izan da, bai er-

tzainek, bai kateatuek eta baita lekuko batek ere, argi utzi baitute asteazken hartan azokaren nondik norakoek beren ohiko bidea egin zutela, inongo unetan ez baitzen herritarren aurkako ezer egin», gaineratu dute.

Erantzunaren zain geratu ziren sei gazteak.

## 2-3 irabazi zuen Lauburuk Kantabrian

**Ibarra** » Partida irabazita hiru puntu etxeratu dituzte ibartarrek; lehia «estua eta zirrarragarria» izan zen igandekoa.

**ERREDAKZIOA**

Partida «estua eta zirrarragarria» jokatu zuten Ibarra Lauburu areto futbolero jokalariek igandean Kantabrian Corrales de Buelna taldearen kontra. 2-3 irabazi zuten eta Asturiaseko epailek epaitu zuten norgehiagoka.

Zelaieratu ziren Ibarra lehen bost jokalariek Joseba Balerdi, Unai Labaca, Ion Ander Karrera, Cristian Davila eta Inigo Arrosperide izan ziren. Aitzol Oyabidek, Ion Garmendiak eta Ander Esnaola

*Txipi* ere izan zuten jokatzeko aukera. Hiru orduko bidaia egin ostean iritsi ziren jokalariek eta taldeko jarraitzaileak Kantabriara. Ibartarrek, lehenik eta behin, Asturiaseko epailearen lana salatu dute, euren ustez ez zutelako maila egokiaz erakutsi.

Lehen gola sei garren minutuan sartu zuen Corrales de Buelna taldeko jokalaria batek, baina lehen zatiko gol bakarra izan zen. Gai nontzeokoak bigarren zatian iritsi ziren, baina «ederki sufrtituta». 24. minutuan lortu zuen berdinketa Cristian Davilak eta bost minutu beranduago iritsi zen Unai Labacaren bigarrena. Hirugarrena, berriaz, Ander Esnaola *Txipi* gazteak sartu zuen.

Lauburuk hiru puntu etxeratu zituen, hortaz, igandean.

## ■ Laburrak

### Festa Batzordearen bilkura gaur, 20:00etan

**IBARRA** ● Ibarra Udal Kultur eta Gazteria Batzordeak pasa den abuztuko San Bartolome jaiaren balorazioa egiteko bilera egingo du gaur, 20:00etatik aurrera udaletzeko pleno aretoan. Batzordeak herritar guztiak bilkuran parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

### Liburutegia goizez itxiko dute ostiralean

**IBARRA** ● Ibarra Benito Izagirre kultur etxeko arduradunek esan dutenez, liburutegia goizez itxita egongo da ostiral honetan, hilak 16. Arduradunek sor daitezkeen eragozpenengatik barkatzeko eskatu dute. Arratsaldean hiko orduetgia izango du, hau da 16:00etatik 20:30era.

### Lizarra, Aiegi eta Doneztebera irteera

**VILLABONA** ● Aritza Kultur Taldeak ibilbide gidatua antolatu du igandeko Lizarrako jauregi desberdinak, Iratxe monastegia eta Deikoko gaztelua ezagutzeko. Villabonako elizatik irtengo dira 08:45ean. Izen emateko 685 723 619 eta 669 397 724 zenbakietara deitu behar da eta 35 euro ordaindu.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



III. Nekazal Azoka igandean izango da. Argazkian, izaroaren une bat. PATXI RENOBALDES

## Udazkenean Kultura egitasmoa, asteburuan hasi eta azaroaren amaiera arte

**Alegia** » Herriko Txintzarri abesbatza eta Zumaiako abesbatzaren kontzertua izango da lehenengo ekitaldia, larunbatean.

### ERREDAKZIOA

Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan hainbat ekitaldi eta ekimen antolatu ditu Kultura Batzordeak. Asteburu honetan hasi eta azaroaren amaiera arte iraungo du egitasmoak. Lehenengo bi ekitaldiak herriko Txintzarri abesbatza eta Zumaiako abesbatzak emango duten kontzertua eta III. Nekazal Azoka izango dira.

Nekazal Azokaren berezitasuna da parte-hartzaileak herritarrek direla. Batzuk salerosketa egiten dute, besteek berriz beren produktua ikusgai jarri nahi izaten dituzte. Kultura Batzordetik azaltzen dutenez, oraingo 15 bat postu daude aurreikusita. «Urte batzuetan animaliak ere ekarri izan dituzte, aurretan gutxiago izango dela dirudi, momentuz behintzat», gaineratu dute. Azoka goizean zehar izango da. Parte hartu nahi duenak



Anjel Unzu gitarra-jotzaileak kontzertua emango du azaroaren 6an. HITZA

oraindik badu Kultur Etxean izena emateko aukera. Batzordetik gogoratu dute izena emateko garrantzitsua dela, beharrezko materialaren eta espazioaren aurreikuspena egiteko.

### 'Garai bateko Alegia' festari buruzko proiektua

Nabarmentzeko beste ekimena Garai bateko Alegia festaren proiektua izango da. «Ekainean izan zen festa eta sekulako arrakasta izan zuen», azaltzen dute Kultura Batzordetik. Egun hark

utzitako irudi eta bideoekin muntaiatzen ari dira Eduardo Arraiet eta Iñigo Balerdi. Aste oso batean ikusgai izango da Kultur Etxean.

Kontzertu interesgarria izango da Anjel Unzu gitarra-jotzaile eta konpositorearena. Musikari askorekin kolaboratu izan du, bakarkako lanak egiteaz gain.

Beste ekitaldi berezia Alegiako Mapping Party-a (mapa festa) izango da. «Herrikan blogari mugimendu indartsua dago eta euren ekimenaz antolatuta da mapa festa hau», azaltzen dute Batzordetik.

### » EKITALDIZ EKITALDI

#### Urriak 17, larunbata

■ 19:45. Zumaiako abesbatza eta Txintzarri abesbatzen kontzertua elizan.

#### Urriak 18, igandea

■ 11:00. Nekazal azoka herriko plazan.

#### Urriak 20, asteartea

■ 18:00. Ipuin kontaketa Ines Ben-goarekin liburutegian.

#### Urriak 24, larunbata

■ 16:00-18:00. Txalaparta tailerriari hasiera emango diote. Dani Rubio da irakaslea eta Kultur Etxean izango da ikastaroa. Urriaren 31n eta azaroaren 7an, 14ean, 21ean eta 28an izango dira beste saioak.

#### Urriak 25, igandea

■ 10:00. Dantzari Txiki Eguna.

#### Urriak 26, astelehena

■ 18:00-19:30. Garai bateko Alegia festaren proiektua, Eduardo Arraiet eta Iñigo Balerdiren eskutik Kultur Etxean. Urriaren 27, 28, 29 eta 30ean ere egingo da. Urriaren 31n, 11:00etatik 12:30era izango da.

#### Urriak 27, asteartea

■ 19:00. Makrobiotikako ikastaroaren hasiera Aitor Jimenezekin Txintzarri elkarteetan. Beste saioak azaroaren 3, 10, 17 eta 24ean izango dira.

#### Azaroak 6, ostirala

■ 22:00. Gitarra kontzertua Angel Unzurekin Kultur Etxean.

#### Azaroak 8, igandea

■ 11:00. Ginkana Langurre txirrindulari elkartearen antolatuta, Larraitz auzoan.

#### Azaroak 13, ostirala

■ 17:30. Ingurumena haur antzerkia Tenconten antzerki taldearekin, Kultur Etxean.

#### Azaroak 15, igandea

Txintzarri Eguna.

#### Azaroak 19, osteguna

■ 18:00. Maite Franco ipuin kontalariak emanaldia egingo du liburutegian.

#### Azaroak 20, ostirala

■ 18:00. Alegiako Mapping Party (mapa festa: mapa osatu, poteoa eta aforaia), Kultur Etxean. Antolatzailerak: txintzarrisfera.ning.com.

#### Azaroak 27, ostirala

■ 19:00. Bertso poteoa eta ondoren aforaia Arkaitz Oiarzabal Xamoa eta Jokin Labayenekin Intxurre elkarteetan. Zazpi astorekin gaine... bertsoazale taldeak antolatuta.

#### Azaroak 29, igandea

■ 08:30. Mendi irteera (Tolosa-Amasa-Villabona) eta bazkaria antolatuta du Mendi Asanbladak.

## Jubilatuentzat Nafarroako Errioxara egunpasa antolatu dute

**Ikaztegieta** » Hilaren 22an izango da egunpasa, Udalak antolatuta, eta izena emateko azken eguna etzi izango da.

### ERREDAKZIOA

Ikaztegieta Udalak Nafarroako Errioxara egunpasa antolatu du jubilatuentzat. Hilaren 22rako antolatu du eta izena eman nahi duenak etzi du azken eguna horretarako. Udaltxean bertan eman behar da izena.

Egunpasarako irteera udaltxeko ondoko zubitik izango da, 08:00etan. Lehenengo Lodosako Conservas peron pikilo piparren fabrika bisitatuko dute. Bertan hamaiketakotxi bat izango dute. Ondoren Corellako Bodegas Corellanas upategian ardo probaketa egingo dute, ogitarteko batekin lagunduta. Azkenik Kalagorrira izango dira. Bertako azoka bisitatzeko aukera izango dute, ostegunetan izaten baita.

Bisiten ondoren bazkaria izango dute Azagra herriko Venecia jaretxean. Besteak beste, menuan arkume erre (segobiar erara), entsalada eta kontsomearekin izango dute. Egunpasa guztiaren prezioa 24,50 eurokoa da.

## Laburrak

### Loatzo musika eskolakoak batzarrak egiten ari dira

**MUSIKA** ● Loatzo musika eskola batzarrak egiten ari da eskualdeko hainbat herrietan. Ibarran gaur izango dute batzarra, 19:30ean Kultur Etxean. Anoeta eta Iruako-ek bihar izango dute batzarra, 19:00etan Anoetako pleno aretoan. Alegikoek eta Altzokoek etzi izango dute batzarra, 20:00etan, Alegiako Kultur Etxean.

### Odola emateko aukera, etzi, sendagilearen etxean

**ALEGIA** ● Odola emateko aukera berri bat izango da Alegian. Etzi, sendagilearen etxeara joan behar du, 19:00etatik 21:00etara, odola eman nahi duenak.

### 'Tetro' bihar, eta 'Akelarre' etzi ikusgai

**TOLOSA** ● Zine forumaren baitan, bihar *Tetro* filma emango dute Leidor antzekian. Jatorrizko bertsiotxo izango da emanaldia. Bi saio izango dira: 19:15ean eta 21:45ean. Bestalde, etzi, 17:00etan Pedro Olearen *Akelarre* filma emango dute, Kutzak antolatuta.

## Txalaparta eta makrobiotika

### ERREDAKZIOA

Kultur egitararen baitan aurten goan berritasun bezala bi ikastaro egiteko aukera izango da. Alde batetik, makrobiotika ikastaroa, eta bestetik, txalaparta ikastaroa. Bi ikastaroetako irakasleak herritarra izango dira.

Makrobiotika ikastaroaren ira-

kaslea Aitor Jimenez izango da eta Txintzarri elkartearen emango dituen saioak. Urriaren 27an hasiko dira eta asteartean elkartuko dira, 19:00etan. Guztira bost saio izango dira eta ikastaroaren prezioa 10 eurokoa da.

Txalaparta ikastaroari dagokionez, Dani Rubio izango da irakas-

lea eta saioak Kultur Etxean emango ditu, 16:00etatik 18:00etara larunbatetan. Guztira 6 saio izango dira eta lehenengo hilaren 24ean emango du. Prezioa 10 eurokoa izango da. Bi ikastaroetan izena emateko Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera joan behar da eta epea hilaren 23an amaitzen da.



17°  
8°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	13°
HOTZENA	3°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxe.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdia

- **Ibarra.** Loatzoko Musika Eskolaren batzarra Kultur Etxean 19:30ean.
- **Ibarra.** San Bartolome jaien balorazio bilera udaletxean 20:00etan.
- **Ibarra.** Ainara Lopetegui osteoprosiaz ariko da 17:00etan Bizi Nahi jubilatuta elkartearen.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

### » IRRATIA

#### Txolarre irratia

**11:00-13:30.** Tolosaldeko Ahotza: Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistekak, oharrik, agenda...), Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30-14:00.** Albistegia - Info 7. **14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.** Musika nobedadeak. **17:45-18:00.** Argia astekaria. **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotza (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7. **21:00-23:00.** Bide okerretik.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

**08:30.** Zahar berri. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kale kantoian. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erlorklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** EH lau haizetara. **12:30.** Klipak. **13:00.** Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kale kantoian. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erlorklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** EH lau haizetara. **16:30.** Klipak. **17:00.** Muka-Muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoako kultura. **18:30.** Saio berezia: Zarrautz surf. **19:00.** Wazemank. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Golb TB. (16:30etik 20:00etarako blokea 4 orduko errepikatzen da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Plazako parkea eraberritzen

**IBARRA** ■ Ibarra Udalak ostiralean hasi zen San Bartolome parkea eraberritzen. 58.620 euroko aurrekontua duten lanak egingo dituzte eta helburuak «esparruko baldintzak hobetzea eta bertan jolastu ohi diren haurren segurtasuna bermatzea» dira. Horiek horrela, altzariak aldatuko dituzte eta «zoru erabiltzaileak erortzerokan mina hartu ez dezaten» moldatuko dute. Parkea 1991n egin zuten eta behin bakarrik egin dituzte konponketak bertan. «Hala ere, erabiltzaile asko ditu bai helduak eta, batik bat, haurrek. Etengabe erabilera honek narriadurak eragin ditu», argitu du Udalak. R.CALVO

## A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...


**agurrak** agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

egunean 20 zentimoren truke, ZUREA DA HITZA

**ORAIN harpidedun egin eta bidaia paregabe bat eskuratu dezakezu!**



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak  
2 lagunentzat bidaia

ez galdu aukera

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

**www.tolosaldeko-hitza.info**

eraman/bidali zure datuak:

Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa

Herriko plaza 1 • 21850 Leitza

Izen-abizenak, helbidea, herria, P.K. telefonoa, p.elektronikoa eta kontu zenbakia

Deiak eta datuak jasotzeko azken eguna: urriak 30  
Sari-dunaren izena egunkarian: azaroko 6



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

**Gazte Eguneko bazkaria**

Urriak 17 • Larunbata • 14:00etan • Leitza



**sarrerak**

HITZAK 2 harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

**Cocidito Madrileño 2**

Urriak 17 • Larunbata • 20:30ean  
Tolosako Leidorren



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira harpidedun kidea eskura duzula